

## 1. FITXA Osasun-zentroetan edo mediku-kontsultategietan oin berriko obrak zein handitzeko, eraberritzeko edota konpontzeko obrak egiteko eta proiektuak idazteko toki-erakundeentzako laguntzak

**Norentzat:** Osasun-zentro edo mediku-kontsultategietan proiektuak, obrak edo altzari-horniketak abian jarri dituzten edota 2024 urtean abian dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeak.

**Sarbide-esteka:** Eskabideak Osakidetzako Zuzendaritza Nagusira bidali behar dira (Araba kalea 45 zk., 01006 Gasteiz).

**Erreferentziazko araudia:** [2024ko otsailaren 6ko Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren erabakia](#)

**Eremuak:** Osasuna

**Zenbatekoa:** 500.000 €

**Eskabideak aurkezteko epea:** 2024/03/23

### Laburpena

Deialdiaren xedea Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeei, beren osasun-zentroetan edota haien mendeko mediku-kontsultategietan oin berriko obrak zein handitzeko, eraberritzeko edota konpontzeko obrak egiteko, proiektuak idazteko eta bai eta beharrezko altzariak jartzeko laguntzak esleitzea da.

Laguntza hauen onuradun izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakunde gisa 2024an osasun-zentroen edo mediku-kontsultategien proiektuak, obrak edota altzari-hornikuntzak abian jarri dituzten funts publikoen hartzaileak, bai eta 2024 urtean obrak abian dituztenak ere.

### Diruz lagun daitezkeen gastuak:

Laguntzaren zuzkidurak honako gastu hauek estaltzen lagunduko du:

- Proiektuak idaztea.
- Oin berriko obrak.
- Handitze-obrak.
- Eraberritze-lanak.
- Zentroa mantentzeko konponketa-lanak.
- Altzariak erostea.

Proiektu eta obra horiek dirulaguntza jaso duen toki-erakundea titular duten orube, eraikin eta lokalei buruzkoak izan behar dute.

Laguntza bakoitzaren zenbatekoa, hala badagokio, egin beharreko inbertsio osora iritsi ahal izango da.

## **Eskabideen balorazioa**

Balorazioa honako irizpide hauen arabera egingo da:

- a) Eskatzen den hobekuntza finantzatzeko arrazoizko beste aukerarik ez egotea.
- b) Herri bakoitzaren inguruabar bereziak kontuan hartzea, hala nola salbuetsita dauden eraikinetan edo beste zerbitzu historiko-artistiko batzuei atxikita ez dauden eraikinetan obrak egitea.
- c) Lehentasuna emango zaie zentroetako arkitektura-oztopoak kentzeko bai barruan bai kanpoan egin beharreko obrei, bai eta irisgarritasuna helburu dutenei ere.

## **Intereseko beste alderdi batzuk**

Laguntza ematea bateraezina izango da helburu bererako eta kontzeptu bererako beste edozein laguntza motarekin, gainfinantzaketarik balego.

Kofinantzaketaren kasuan, helburu bererako lortutako laguntzen zenbateko osoa guztizko kostua baino handiagoa bada, emandako laguntzaren zenbatekoa soberakinari dagokion kopuruan murriztuko da.